



EBAZPENA, 2021eko abenduaren 14koa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2021-2022 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2021ko uztailaren 6ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen lehen eta bigarren berritzeak ebazten dituena.

Laguntzak berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzaren lehenengo berritzea onartzea eta dagokien ezarpen zentroa zein kontratuak eta bidaiak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea.

Bigarrena.-II. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzaren bigarren berritzea ematea eta dagokien ezarpen zentroa zein kontratuak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea.

Hirugarrena.- Laguntza berritze horien zenbatekoak ordaintzea xedapen honen I. eta II eranskinetan aurreikusten diren aplikazio-zentroei, uztailaren 6ko Aginduak, 6.6 artikuluan, ezartzen duen moduan.

Laugarrena.- Dirulaguntzen zenbatekoa, iraupena eta gainerako baldintzak, 2021eko uztailaren 6ko aginduak xedatutakoak izango dira.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Hezkuntza sailburuari gorako errekurtoa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 14ean.

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea
Adolfo Morais Ezquerro



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN